

berrikitto!

24. zenbakia

2016KO APIRILA

HARREMANETARAKO: 943 20 09 18 / 943 20 67 76 / 943 20 28 72 (FAXA) / elkartea@etakitto.eus

Konpromisoen garaia da

Ahaleginak egin arren, emaitzak ez dira beti nahi bestekoak izaten, baina 2015a urte eman-korra izan denik ezingo dugu ukatu. Gehiago egin/eragin zitekeela? Hobeto egin zitekeela? Bai, beti, baina Eibar euskaldunago egiteko talde-ahalegin horretan, geure onena eman dugu, eta emaitzak etorri dira.



Ainara Argoitia,
...eta kitto!
presidentea

Erronken zerrenda amaigabea zen eta da, bistan delako gure Eibar hau ez dela guk nahiko genukeen bezain euskalduna, baina denari ezin heldu eta bi frontetan tematu gara azkeneko urtean, beti ere euskararen transmisioa eta erabilera bultzatzeko helburuarekin. Bietarako, baina bereziki transmisiorako, jakin badakigu hedabideak zein estrategikoak diren –mundua, inoiz baino gehiago, hedabideen arabera ikusten dugu– eta arlo horretan bi lehentasun zehaztu genituen: ...eta kitto! aldizkaria berritzea eta aspaldian amesten genuen moduko webgune dinamiko(ago) bat sortzea, eta gaztetxoentzako sortutako Txikitto! hilabetekariari kolorea ematea eta haren tirada handitzea, eskola-ume bakoitzak ale bana jaso zezan. Eta zailtasunak zailtasun –ez direlako gutxi izan, bide batez esanda–, lortu dugu.

Eta lortu dugu, era berean, euskararen komunitatea sortu eta trinkotzeko orain hamasei urte sortutako gure Berbetan proiektuak hazteko behar zuen diru-babesa ere -50.900 euroko aparteko diru-partidarekin lagundu du aurten Udalak, estrainekez-. Euskarra Primerara eramateko ezinbestekoa baita hori ere: herritarrok mila eratarako erakutsitako indar, borondate on eta konpromisoari administrazioen ahala gehitzea. Dena baita gutxi, dena baita beharrezko, euskararen erabilerak gora egingo badu, euskarak esparru gehiago irabaziko baditu. Esan beharrik ez dago, beraz, itzel poztu gaituela Euskaraz primeran kanpainak izan duen harrerak, herritarrok eman diozuen babesak, baina ez gaitzala orain horrek lilura. Ilusio guzti hori konpromiso bihurtzeko bidea asmatu behar dugu orain, konpromiso sendoa behar duelako gaur euskarak. Euskaldun izatearen kontzientzia hartu, eta egin dezagun beraz euskaraz, modu horretan bakarrik lortuko dugulako euskarara lagun berriak ekartzea. Itxaropena badut: ...eta kitto! elkarteko langileok erakutsi duzuen gogo eta ekimenarekin, bazkideon parte hartzearekin eta herritarren eta administrazioen bultzadarekin lortuko dugu.

Oinarri ahula hedabideentzat

Bazkideok inork baino hobeto dakizue, ...eta kitto! euskara elkarteak urte oso latzak bizi izan dituela. ...eta kitto! astekariari dagokionean, ez da erraza astero-astero eibartarron etxeetara ailegatu den aldizkaria idatzi, maketatu eta banatzea, eta aurrera jarraitu ahal izateko neurri gogorrek hartu behar izan ditugu: orrialde kopurua txikitu, langile kopurua gutxitu, soldatak murriztu...

...eta kitto! astekaria %61ean autofinantzatzen da, publizitatea eta herri-ekimen bitartez. Gainontzeko %18a Jaurlaritzatik, %9 Gipuzkoako Foru Aldunditik eta %12 Eibarko Udalaren diru-laguntzen bidez finantzatu izan da orain arte.

Baina, tamalez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak euskal hedabideentzat egiten dituzten diru-laguntza deialdiak gero eta berandugo kaleratzen dira eta ebazpena, hau da, zer jasoko dugun jakiten dugunerako erraza da uztaile inguru izatea. Ordurako urte erdia pasatuta dago, hau da, urte erdiko gastua eginda dago, zer etorriko den jakin gabe.

Aurten are zailagoa izango da. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Europar Batasunak eman behar duen baimen berezi bat dela medio ez baitu diru-laguntza deialdirik argitaratuko iraila/urrira arte.

Eusko Jaurlaritzak ere momentuz ez du deialdirik argitaratu eta sei hilabeteko epea egoten denez ebazpena egiteko (hedabide bakoitzak jasoko duen edo ez, eta jasotzekotzan zenbat jasoko duen esateko), litekeena da udazkenara arte ezer ez jakitea.

Benetan zaila da urteko aurrekontua prestatzea, urte amaierara arte Aldunditik eta Jaurlaritzatik ezer jasoko dugun eta jasotzekotan zenbat izango den jakin gabe. Momentu honetan Udaletik jaso izan ditugun 35.041 €, eta aurten Bilduk egindako zuzenketari esker jasoko ditugun 25.000 € dira hedabideetarako gure oinarri ziur bakarra. Kopuru horien arabera, 17 zentimo jartzen ditu Eibarko Udalak "...eta kitto!" ale bakoitzeko. Tamalez, kopuru hau aldameneko herrietako hedabideek jasotzen duten babesetik urruti gelditzen da (Ermuko "Drogetteniturri" eta Elgoibarko "Barren", esaterako) Hala ere, ezin dugu ukatu proiektuak bizirauteko arnasaldia emango digula diru horrek, batez ere gainontzeko administrazioetatik urte amaierara arte zentimo bakar bat ere ikusiko ez dugula jakinda.

Zuen babesa eta indarra gure jardunaren oinarri

Gure proiektuarekin aurrera egiteko autofinantzaketa-iturriak eta babes soziala ezinbestekoak ditugu. Bi helburu horiek lortze aldera, ondorengoak antolatzen ditugu:

Kittonbolia: Arrate egunean, irailaren 8an, Arrateko eliza parean topatzen duzue gure tonbolia.

Sagardo Eguna: Urriko lehen zapa-tuan, Untzaga plazan ospatzen dugun egun osoko jaialdia da.

Pailazoak: Abenduan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izaten ditugu. Uni Kultur Elkartearekin elkarlanean.

Rifak: Gabonetako otar ederra zozketatzen dugu urtero. Ezinbestekoa zaigu ekimen hau aurrera eramatea gure urteko jardunari eutsi ahal izateko.

Beti eta edonon izan dugu bazkide eta herritarren babesa eta estimua, eta horrek indar handia eman digu sinesten dugun honetan jarraitzeko.



KRONOGRAMA 2015

URTARRILA

Urtarrilak 18: Eibarko Arma Museora bisita, guraso berbalagunekin.
Urtarrilak 27: "Gabon osteko gehiegikeriak arintzeko zer?" hitzaldia, Jaione Yeregirekin.

OTSAILA

Otsailak 3: Harixa Emoten literatur tertulia. Inigo Aranberriren "Apirila" liburua.
Otsailak 4: Santa Ageda kalejira guraso berbalagunekin.
Otsailak 13: Aratosteetako pregoia.
Otsailak 15: Aratosteetako Play Back lehiaketa.
Otsailak 27: "Euskararekiko motibazioa eta jarrerak" hitzaldia guraso berbalagunentzat.

MARTXOA

Martxoak 3: Harixa Emoten literatur tertulia. Ur Apalategiren "Fikzioaren izterrak" liburua.
Martxoak 6: Gurasoak Berbetan, ipuin-kontaketa musikatua.
Martxoak 10: "Erdaldunberrien kluba" umorezko bakarizketa, Korrika Kulturalaren barruan.
Martxoak 16: Gurasoak Berbetan, magia-ikuskezuna.

APIRILA

Apirilak 7: Harixa Emoten literatur tertulia. Danele Sarrigarteren "Erraiak" liburua.
Apirilak 24: Gurasoak Berbetan, eskulan-tailerra.
Apirilak 25: Berbetan irteera, Gernikako Bake Museora.

MAIATZA

Maiatzak 10: Gurasoak Berbetan, kultur ibilbidea Eibarko kaleetan zehar, Arantza Lasarekin.
Maiatzak 12: "Euskera eta kirola" mahaingurua. Alex Txikon, Bihurri eta Maite Maiora.
Maiatzak 13: Ipurterre ipuin-lehiaketako sari-banaketa.
Maiatzak 22: Gurasoak Berbetan, eskulan-tailerra.
Maiatzak 25: Euskeraren Transmisioaren Mintegia.
Maiatzak 25: Haserrealdiei buruzko hitzaldia, Nerea Mendizabal psikopedagoarekin,
Maiatzak 30: Mintza Eguna, Beran.

EKAINA

Ekainak 3: "Udarako azala nola prestatu" hitzaldia, Zalao Otaduirekin.
Ekainak 18: Gurasoak Berbetan, Zirko-tailerra eta ikuskizuna.
Ekainak 19: Berbalagunentzat ikasturte amaierako afarimerienda.
Ekainak 23: San Juan sua.
Ekainak 25: Euskal Jaialdia, herri-kirol erakustaldia.

IRAILA

Irailak 7: Arrateko Bertso Afaria.
Irailak 8: Kittonbola Arraten.
Irailak 23: Berbetan programaren aurkezpena.
Irailak 25: Berbetan Jaialdia. Tailerrak, puzgarriak eta Irrien Lagunak.

URRIA

Urriak 3: Sagardo Eguna.
Urriak 4: Kilometroak-era autobusak.
Urriak 6: Harixa Emoten literatur tertulia. Koldo Izagireren "Dumitru" liburua.

Urriak 14: Txakoli- eta ardo-dastaketa berbalagunentzat, Mikel Garaizabal enologoarekin.

Urriak 18: Nafarroa Oinez-era autobusak.

Urriak 22: Gurasoak Berbetan, "Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arrisku gabekoa" hitzaldia.

Urriak 27: Basatxeri produktuen dastaketa.

Urriak 30: Gurasoak Berbetan, antzerkia.

AZAROA

Azaroak 3: Koktel-ikastaroa ostalari berbalagunentzat.
Azaroak 3: Harixa Emoten literatur tertulia. Garazi Kamioren "Orube abandonatuak" liburua.

Azaroak 16: Opari-paketeak egiteko ikastaroa, dendari berbalagunentzat.

Azaroak 20: Gurasoak Berbetan, txokolatada.

Azaroak 21: Gurasoak Berbetan, Txuri Urdiñera irteera.

Azaroak 22: San Andres Bertso Jaialdia eta Bertso Paper Lehiaketako sari-banaketa.

Azaroak 25: "Nola galdu lotsa euskeraz hitz egiterakoan" hitzaldia, Jürgen Wolf-ekin.

ABENDUA

Abenduak 1: Harixa Emoten literatur tertulia. Jabier Muguruzaren "Hilen logika" liburua.

Abenduak 3: Euskeraren Eguna.

Abenduak 11: Gurasoak Berbetan, gabonetako apaingarriak egiteko tailerra.

Abenduak 12-13: Piritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizuna.

Abenduak 15: Ramon Roteta eta Pili Manterola sukaldarien hitzaldia.
Abenduak 31: Kirolkitto! Kirol-sari banaketa.

The screenshot shows the homepage of etakitto.eus. At the top, there's a navigation bar with categories: ELKARTEA, PROIEKTUAK, BERBETAN, and EUSKARA ZERBITZUAK. Below this, there's a main content area with several articles and images. On the right, there's a sidebar with a calendar for 'kirol AGENDA' and 'EMAITZAK', and a section for 'Finala: Apirilaren 22an'.

webgune berria eta indartua

Astiro-astiro baina gelditu gabe, webgune berria sukaldatzen eman genuen 2015. urtea. Beharrezkoa ikusten genuen webgunea erabat berritzea eta erailtzaleei zerbitzu eta aukera berriak eskaintzea, eta azkenean urte amaieran aurkeztu genuen eibartarrron aurrean. Itxura hobetu eta funtzionalitateak handitzeaz gain, herriko albisteak eta elkartearen baitan sortzen direnak etengabe eguneratzen ditugu, eta horretan datza, hain zuzen ere, jasotzen dihardugun erantzun onaren gakoa. Bisita kopurua %65 igo da, eta etorkizunean webguneako edukiak lantzen eta erabiltzaile gehiago lortzen jarraitzeko asmoa daukagu.

www.etakitto.eus-ek, herriko albisteak jorratzeaz gain, Euskara Elkarteak albiste, proiektu eta zerbitzu guztien berri ematen du etengabe, erabiltzaileen parte-hartzea bultzatuz: jardueretan ize-na emateko aukera dago, iradokizunak bidali daitezke, aurrekontuak eskatu, agenda kontsultatu, elkarteak bazkide egin...

The screenshot shows a news article on the website. It features a photo of a person and text in Basque. The article is titled 'Ondare Nagusia' and discusses a project or event. There's also a small graphic with the number '1.608'.

Aldizkariaren diseinu eta atal berriak

Webgune berriarekin batera aldizkariaren diseinu berria auzetu genuen abenduaren 17an. Mantxeta berria, tipografia berria, kolorearen tratamendu ezberdina, argazki handiagoak, freskotasuna ematen duten elementuak... 2016an lau orrialde gehiago ditugu astero, eta horrek atal berriak ateratzeko aukera paregabea ematen digu: zutabegileak; literatura, osasuna, sexologia, historia, moda eta arkitekturari buruzko kolaborazioak, Tutulumendi komikia; marrazki eskolako ikasleen karikatuerak; inguruko herrietako albisteak...

berbetan

2016an Euskera helburu! goiburua hartuta ekin zion 2016. urteari Berbetan mintzapraktika egitasmoak, baina 2015a ere emankorra izan zen, oso. Ikasturtea izen-emateko kanpainarekin hasi genuen, kartel eta bideo berrieekin. Aurkezpenarekin batera egin genuen Berbetan Jaialdia Untzagan. Heldu eta ume ugari gerturatu ziren, eta izena ere batek baino gehiago eman zuen. Ikasturtea 90 berbalagunekin hasi bagenuen, gaur egun ehuneko muga gainditu eta 115en bueltan gabiltza. Berbalagunak, euskera praktikatzeko, astean behin ordutebe elkartzeaz gainera, ekintza osagarri ugari ere antolatu ditugu eurentzat: ardo- eta txakoli-dastaketa, teknologia berrien erabilera osasuntsuaren inguruko hitzaldia, Txuri Urdinera irteera... Eta datozen asteotan ere, ikasturtea amaitu bitartean, ez da ekintzarik faltako: Azpeitiko Tren Museoa bisitatuko dugu, Flysch-era juango gara, eta ekainean ikasturte amaierako jaialdia eta afarimerienda egingo ditugu.

Talde naturalen bila

Astean behin elkartzen diren taldeetan izena ematea nahi ez duenak, bere talde naturala aprobetxa dezake euskera praktikatzeko, hau da, berez eginda dauden taldeek ere egin dezakete bat egitasmoarekin (lagunak, gurasoak...). Aurten hainbat talde naturalek eman dute izena, eta hartzen duten konpromisoa, gutxienez, astean behin, euskeraz egitea da: kafea hartzerakoan, umeei ogitartekoa banatzerakoan... Datorren ikasturteari begira, gainera, auzoetara joango gara talde natural gehiagoren bila.

Euskeraz Primeran! berritua

2014an abian jarritako Euskeraz Primeran! kanpainak indar eta pisu handia hartu du. Herriko denda eta tabernetan euskeraren erabilera areagotzeko sortutako kanpainan, gaur egun, 360 establezimenduk dute izena emanda. Bezeroarekin, gutxienez lehenengo hitza, euskeraz egiteko konpromisoa berretsi edo lehenengoz hartzeko aukera eskaini zaie aurten (pegatina berriztu zaie), eta horrekin batera, euskeraren inguruan duten egoera, premiak... antzemateko galdetegia ere egin zaie. Datu horiekin herriko establezimenduetako "argazkia" atera ahal izango dugu.

Dendari eta tabernarientzat ere antolatzen ditugu ekintza osagarriak, besteak



Koktel ikastaroa egin genuen tabernarientzako, eta aurten gin tonic lehiaketa antolatu dugu.



Berbetan izen-emate kanpainarako karteleko protagonistak.



Berbetan jaialdia Untzagan.

beste, koktel-ikastaroa eta opari-pakete originalak egiten ikastekoa antolatu genituen iaz. II. Gilda Lehiaketa izan dugu martxoan, eta orain, apirilera, I. Gin Tonic Lehiaketa antolatu dugu. 20 tabernak eman dute izena, eta lehen fasearen ondoren, apirilaren 22an, Untzagan izango da 3 finalisten arteko finala, 20:30etik aurrera.

Ikusten duzuen moduan indar handia hartu du mintzapraktika-egitasmoak, are gehiago Eibarko Udalaren diru-laguntza jaso zuenetik. Parte-hartzaile kopuruak gora egin du, eta horri neurriko zerbitzu-eskaintza eman behar diogu, horrek dakarren esfortzu pertsonal eta ekonomikoarekin. Horregatik, diru-babes hori ezinbestekoa egiten zaigu proiektuarekin aurrera jarraitzeko, herritarrek erakutsi duten konpromisoarekin batera erakundeena ere nahitaezkoa delako.



Txuri Urdin-en patinatzen guraso berbalagunekin.



Urteko Batzar Nagusia egin du ...eta kitto!-k

Martxoaren 17an egin zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia. Gai-zerrendari jarraituz, lehenik eta behin 2015eko gestio-balantzea onartu zuen Batzarrak, eta 2016rako egitasmoak, bazkide-kuotak, aurrekontua eta zuzendaritza berria ondoren.

2016rako bazkide-kuotak iazko berak izatea onartu zan: 16 urtetik beherakoentzako 5 euro; langabe, ikasle, jubilatu eta etxeoandrentzako 15 euro; eta bihargiñentzako 45 euro. Horrekin batera, iazko zuzendaritzari eutsiko zaio aurtan ere: Ainara Argoitia (presidentea), Moises Gonzalez (presidente-ordea), Mainer Aranberri (idazkaria), Marisol Uriarte (diruzaina) eta Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Aitor Alberdi, Julian Fernandez, Jon Mardaras, Ekaitz Olaizola eta Ane Urkiola (bokalak).

Datozen hilabeteotan zer?

Iaz iragarri genuen moduan, 6 eta 12 urte bitarteko umeen artean banatzeko dugun **Txikitto!** aldizkaria zuri-beltzetik koloretara pasatu genuen 2015ean, eta horrez gainera, ale-kopurua ere 1.350 aletik 1.600 alera igo genuen, horrela, ume bakoitzak, bere alea izan zezan. Bestalde, datorren ikasturteetik aurrera, **irudi berria** izango du aldizkariak, **irudi-lehiaketa** antolatu dugu-eta, Eibarko LH 5. eta 6. mailako ikasleen artean. Datorren ikasturteko lehenengo alean ikusiko du argia.

Bestetik, datozen hilabeteotan ekitaldi ugarietan murgilduta ibiliko gara, besteak beste: apirilaren 19an, **Errepublikaren Egunaren** harira, "Eibar Errepublikatik haratago!" hitzaldia izan genuen; hurrengo egunean "Mil a zien" umorezko bakarrizketa, eta maiatzean ere izango dugu zer ikusi eta zer entzun. 3an, Euskeraren Transmisioaren inguruko VI. Mintegia izango dugu. Goizean goiz hasita eta bazkaltzako ordura arte, gaian adituak direnek euren azalpenak emango dizkigute. Handik astebetara, maiatzaren 11n, Ipurterre Ipuiñ Lehiaketako sariak banatuko ditugu. Berbalagunentzat ikasturte amaierako pare bat ekitaldi ere izango ditugu, eta ekainean San Juan jaietako ekitaldiei helduko diegu; 19an, jaiak hasi baino apur bat lehenago, Euskal Jaialdia herri-kirol erakustaldia izango dugu Untzagan, eta San Juan bezperan San Juan sua, aurten ere, Nerea Lodosaren taldearen ikuskizunarekin.

2016ko BAZKIDE KUOTAK

| | AURTEN | IAZ |
|--|--------|-------|
| • 16 urtetik behera: | 5 □□ | 5 □□ |
| • Langabea, ikaslea, jubilatua, etxeoandrea: | 15 □□ | 15 □□ |
| • Langilea: | 45 □□ | 45 □□ |

Azken urteetan Elkarteak Batzar Nagusiak kuoten goiera KPIaren arabera egin izan du. Orain dela bi urte azken urteotako emaitza ekonomikoak eta diru-laguntzen jaitsierak ikusita, KPItik gorako igoera onartu zuen Batzarrak, eta baita 2015ean kuota horiei eutsiko litzaiekela ere. 2016an ere bere horretan gelditu dira bazkide-kuotak. Kuota 2016ko maiatzaren erdialdean kobratuko dugu. Arazorik izanez gero, deitu lasai. 943 20 09 18 (Marisol).

Tantanez Tantan, euskeraren olatua badator!

Bi urtetik behin Eibarko euskalgintza osatzen dugun taldeok antolatzen dugun Tantanez Tantan ekitaldia datorren maiatzaren 21ean, zapatua, izango dugu aurtan. Aurrekoetan egin izan den moduan, aurten ere Urkizuko iturrian ekingo zaio ekitaldiari. Bertan beteko da urez gantxilla, eta eskutik eskura giza katean Untzagaraino iristea izango da helburua. Herri osoari dei egiten diogu, Eibarren ere euskeraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko, ibilbideko tarte batean jarri eta gantxilla Untzagaraino eramaten laguntzeko. Koadrodun zapiak gain, aurten arropa urdina eramateko eskatu dute antolatzaileek: jertsea, kamiseta, sudadera... Ekitaldia eguerdiko 13:00etan hasiko da Urkizun.

